



*Beñat Etxebest Etxaldeko lehendakaria Bokaleko etxebizitzaren aurrean (Guillaume Fauveau)*

## **Etxaldek 1,2 milioi euro behar ditu zortzi etxebizitza «merkatu espekulatibotik» ateratzeko**

*Garazi Aduriz Zuñeda*

Etxalde sozietate kooperatiboak zortzi etxebizitza erosi nahi ditu Bokalen (Lapurdi), horiek «merkatu espekulatibotik» ateratzeko. Horretarako, 1.270.000 euro bildu behar ditu, eta herritarrei diru bilketa handi baterako deia zabaldu die. Etxalderen xedea da zortzi etxebizitza horien jabetza eskuratzea. Ondotik, gozamina, hau da, ondasuna erabiltzeko bidean, erdi prezioan saltzea da asmoa. Gaur egun, etxebizitza sozial pribatuak dira, eta zortzi familia alokairuan daude etxebizitza horietan. Kooperatiba haiekin bildu da, Beñat Etxebest Etxaldeko lehendakariak azaldu duenez: «Oraingoz alokatzaileak ez dira guztiz konbentzituak proiektuarekin, baina gure lana izango da frogatzea haientzako abantailak besterik ez direla». Martxoaren 31ra arte dute diru guztia biltzeko.

Izan ere, kooperatibak, pertsona juridiko gisa, etxebizitzaren jabetza soilatik atxiki nahi du, behin betiko etxebizitza merkatutik ateratzeko. «Erosiz gero, biztanleriaren jabetza bilakatuko da», adierazi du Etxebestek. Gozamenaren jabe berriak hasierako erosketa prezio erdiagatik biziko dira etxeetan. Hau da, Bokaleko 57 metro karratu inguruko etxebizitza bat 85.000 euroan eskuratuko lukete. Haien ondorengoei herentzia transmititzeko aukera atxikiko dute, erositako prezioaren %10ean. Gozamina berriz saltzeko aukera ere izango dute. Gozamedunek ekarpen bat egin beharko dute hilabetero, Etxalderen garapenerako, eta Bokaleko etxe horietan hilabetez 205 eurokoa izanen da ekarpen hori. Diru horrek «autofinantzaketarako» modua egingo du, ondoko etxebizitzak erosteko, adibidez, eta Etxalderen ekarpena handituko luke horrek.

Proiektuak aurrera egin dezan, Etxaldek laguntza eskatu die herritarrei. Laguntzeko hainbat bide proposatu ditu kooperatibak: sozietate kooperatiboaren kide bilakatuta, denbora edo dirua eskainita, edota gozamedun bat lagunduta. Eskaintzak ez diren ekarpenak itzuliak izango direla ziurtatu du kooperatibak. Erdia gozamenaren salmenta bidez itzuliko da, zazpi urtean. Beste erdia, berriz, gozamedunek hilabetero egiten duten ekarpenaren bidez itzuliko da, 35 urtean.

*Ez jabe, ez alokatzaile, denak biztanle lelopean, kudeaketa berritzaile bati hasiera emango dio Etxaldek.*